## Juan Guillermo Thalacker, año 1803

# “**Seiscientos hombres** trabajando durante **doscientos años** no hubiesen sido suficientes para horadar todas estas galerías”





**1.** El entorno de las minas de Arditurri ha estado abandonado durante muchos años.

**2.** Existen 15 kilómetros de galerías romanas en las entrañas de Aiako Harria.

La riqueza de las minas de Arditurri, que podrán ser visitadas a finales de verano, ha sido conocida desde tiempos inmemoriales. Si bien hay restos arqueológicos de la Edad de Hierro, es en la época Romana cuando conoce su mayor esplendor. Los romanos decidieron aprovechar al máximo las entrañas de Aiako Harria y desplegaron su avanzada ingeniería. Realizaron un total de 15 kilómetros de galerías en las que extrajeron, principalmente, galena argentífera (mineral de plata).

En la Edad Media las minas se explotaron sobre todo, para extraer hierro y tras un tiempo de abandono, la familia Sein de Oiartzun pidió al ingeniero alemán Juan Guillermo Thalacker que reiniciase su actividad, con el fin de obtener plata y plomo. Fue, precisamente, Thalacker quien en sus excavaciones descubrió un total de 42 galerías y 82 pozos que habían permanecido casi inalterables a lo largo de decenas de siglos. Sus descripciones quedaron por escrito, pero durante años fueron rechazadas por expertos en la materia, que acusaban de fantasioso al alemán. Sin embargo, la veracidad de su informe quedó probada dos siglos más tarde cuando a principios de la década de los 80 del siglo pasado, las investigaciones arqueológicas encontraron numerosos restos que evidenciaron la importancia de la presencia romana en Arditurri.

Edita: Oiartzungo Udala
Redacción: ACC Comunicación
Diseño y realización: ACC Comunicación
Fotografías: Oskar Zapirain, Gema Arrugaeta y Santiago Yaniz

arditurri
Meazuloetan barrena · Experiencia minera

OIARTZUNGO UDALA

arditurri ALBISTEAK

Zkia.: 01 | Maiatza 07



# Arditurriko meategiak

## jendeari zabaltzeko lanak hasi dira

### Natura eta arkeologia uztartzen ditu proiektuak

Ia 20 urtez utzita egon den ingurua berreskuratuko da Arditurriko meatzegunea balioan jartzeko jada martxan dagoen proiektuari esker. Udala bailarako natura, kultura eta ondasun aberastasunak babesteko eta bultzatzeko egiten ari den ahaleginen baitan dago. Parketxe bat eraikiko da eta 800 metroko luzera duen San Joaquin izeneko galeria egokituko da. Horretarako Otsamantegiko bidea konpontzen hasi dira eta Imanol Marrodanek eginiko eskultura bat ere jarriko dute.

Oiartzunek duen berezko natura edertasunari gehitu behar zaio gaur egun Gipuzkoan dauden bide berdeen atalik luzeena, baita Oielekuko pago-motz basoa eta inguru berean kokatuta dauden cromlechak, herriko kasko historikoa eta Aiako Harria Parke Naturala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko bisitatuena.

Baliabide horiek guztiek, Loriartzun ekimenarekin batera, Udalak bultzatutako 'Oiartzun, Euskal Herriko bihotz berdea' izeneko eskaintza turistikoa osatzen dute.

## Félix Losada Rodríguez, director del proyecto museógrafico de Arditurri

# "La recuperación de las minas hará de **Oiartzun** un **referente cultural en Euskadi**"

**El museógrafo Félix Losada Rodríguez ha sido el encargado de diseñar el proyecto de museografía y rehabilitación de la urbanización de Arditurri, que incluye el centro de interpretación y la iluminación de la galería minera. La empresa para la que trabaja, Nuevos Medios, ha diseñado también los proyectos del Museo de las Abejas, de Urretxu, el Museo del Agua, en Sobrón, o el faro de Santa Catalina en Lekeitio.**

**¿En qué consiste el proyecto de puesta en valor de las minas de Arditurri?**
Supone la recuperación de unas instalaciones que llevan abandonadas más de 20 años. El entorno minero se convertirá en un lugar de esparcimiento para los visitantes, con mesas, bancos y zonas de ocio. El visitante podrá disfrutar de un paisaje espectacular y además, con la apertura al público de una galería minera, se abre un paisaje interior igualmente sorprendente.

**¿Existe algún proyecto de similares características?**
La singularidad del coto minero de Arditurri traspasa las fronteras de Gipuzkoa y de Euskadi, debido a que han sido explotadas durante más de 2.000 años. Constituyen un hecho singular de Patrimonio Arqueológico Industrial en el País Vasco y lo son por la significación de sus explotaciones mineras en diferentes épocas y por la incidencia social que tuvieron estas minas en la comarca de Oarsoaldea. Para encontrar casos conocidos de actividad minera tan antiguos habría que trasladarse a las minas de Cartago Nova en Murcia, Las Médulas en el Bierzo, Almacén en Ciudad Real o Río Tinto en Huelva.

**¿Qué aporta a Oiartzun este proyecto?**
Por una parte, el público de la comarca podrá disfrutar de un entorno próximo que para muchos resulta desconocido. Por otra, esta oferta atraerá visitantes de otros lugares, lo que sin duda situará a Oiartzun como un punto de destino turístico. La recuperación de las minas de Arditurri, unida a otras ofertas interesantes en el entorno comarcal, ayudará notablemente a Oiartzun a situarse estratégicamente como un referente en el mapa cultural del País Vasco.

**¿El visitante encontrará algo sorprendente en Arditurri?**
Sin duda. Sorprendente es el paisaje natural, esa cercanía con el macizo granítico de Aiako Harria y sorprendente es también el paisaje exterior que creó la actividad minera a cielo abierto. Podremos sentirnos afortunados de poder contemplar ese paisaje interior de la galería minera de San Joaquín, con sus impresionantes bóvedas, sus zonas inundadas que crean pequeñas lagunas de agua cristalinas, un paisaje de luz y sonido que es como el registro de la huella de una actividad que se va superponiendo a lo largo de cientos de años.

**"Podremos sentirnos afortunados de contemplar el paisaje interior de la galería minera de San Joaquín: sus impresionantes bóvedas, sus zonas inundadas que crean pequeñas lagunas de agua cristalina,..."**





**¿Qué función cumple el centro de interpretación dentro de la puesta en valor de Arditurri?**
En primer lugar servirá como punto de entrada al parque, en el que el visitante podrá conocer las características del macizo de Natural de Aiako Harria. Además, será el nexo de unión entre la formación geológica del espacio natural y la actividad minera, contextualizando ambos procesos para hacerlos más comprensibles. El centro será también el espacio en el que el público recibirá información sobre el Parque Natural de Aiako Harria y la actividad minera del coto de Arditurri, así como sobre la galería habilitada, cuyas visitas se organizarán desde el propio centro.

### Parketxearen fitxa teknikoa:

**Beheko solairua:**
- Harrera
- Denda
- Sarrera-erakusketa: Aiako Harriko mendigunea
- Gune tematikoa: Aiako Harria Parke Naturala:
  - -Klima eta orografia
  - -Flora eta fauna
  - -Gizakiaren parte-hartzea
  - -Mitologia

**Lehenengo solairua: gune tematikoak:**
- Meatze-jardueraren hasiera: erromatarren garaia
- Arditurriko meazuloak: bisitaldi birtuala
- Historia erauzitako mineralen barrena

# Los misterios de **Aiako Harria** al descubierto

## El Parketxe dará a conocer su riqueza patrimonial, cultural y natural

**El Centro de Interpretación de las Minas de Arditurri estará ubicado en el edificio que en su día acogió los laboratorios de las minas y servirá a los visitantes para introducirse en la historia del Parque Natural de Aiako Harria antes de recorrer la parte de la galería minera habilitada para el público.**

Parketxeak 50 metro karratuko bi solairu izango ditu. Behekoan harrera eta denda egongo dira. Liburuak, liburuxkak nahiz oroigarriak topatuko dituzte bertan bisitariek, baita argibide-taulak ere. Horietan Aiako Harriko ondasun, kultura eta natura aberastasunak arin eta didaktikoki azalduko zaizkie bertaratutakoei.

Bigarren soilarua ere ongi aprobetxatu nahi izan dute proiektuaren arduradunek. Hau dela eta, Arditurriko meatzari iraganaren inguruko informazio anitza eskaintzen duten euskarri modernoak aukeratu dituzte. Horiei esker, adibidez, erromatarren garaiko meazulo batean bisitaldi birtuala egin ahal izango da.

Eraikina berritzeko eta martxan jartzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu zein Industria, Merkataritza eta Turismo sailen finantziazioa lortu du Udalak, baita Jakintzaren Gizarterako Gipuzkoako Foru Departamenduarena ere.





1. Aiako Harriko Parke Naturala Euskal Autonomia Erkidegoko bisitatuena da.

2. Parketxea garai bateko laborategian eraikitzeko lanak hasiak dira.

# ¿Cómo eran las galerías mineras?

## Las últimas tecnologías permitirán reconstruir el paisaje y la forma de vida desde la época romana hasta el siglo XX

Las de Arditurri son unas de las pocas galerías mineras existentes en el Estado español que han sido explotadas desde hace 2.000 años de manera casi ininterrumpida. El Centro de Interpretación ofrecerá de manera ágil y didáctica una reconstrucción virtual de las explotaciones mineras en diferentes épocas: desde la Romanización hasta la edad contemporánea (las minas se cerraron en 1984), pasando por el medievo y la edad moderna.

A través de soportes que incorporan elementos de las nuevas tecnologías, el visitante podrá conocer cómo era el paisaje, las actividades mineras que tenían lugar en Arditurri e incluso los ambientes culturales y sociales de las poblaciones cercanas en las diferentes épocas históricas.

### Visita virtual

Pensando en las personas que por diversas circunstancias (claustrofobia, problemas de movilidad,...) no puedan visitar el tramo de galería abierto al público, el parketxe ofrecerá en su segunda planta una visita virtual de las minas basada en imágenes reales de la propia galería.





1. Parketxeko beheko solairuan Aiako Harriko ezaugarriak ezagutzera emango dira.

2. Bigarren solairuan San Joaquin galeriaren bisitaldi birtuala egiteko aukera izango da.

# Una **experiencia** insólita

## Técnicas de iluminación y sonido recrearán la atmósfera que se vivía dentro de la galería

**La visita al corazón de las minas de Arditurri se concibe como un viaje a través del tiempo en el que intervendrán la mente, los sentidos y las emociones. La iluminación y el sonido jugarán un papel muy importante, ya que permitirán crear en el interior de la galería un ambiente mágico, que trasladará al visitante a las diferentes épocas de la historia del coto minero oiartzuarra.**

Antes de introducirse en la galería de San Joaquín, el visitante tendrá un primer contacto en una sala en la que la voz de un narrador (que corresponde a la del ingeniero alemán Juan Guillermo Thalacker) realizará un repaso por la historia de las minas. Irá acompañada de sonido, efectos especiales e iluminación que generarán imágenes y siluetas en movimiento sobre las paredes y el techo.

Después de esta introducción, comenzará la visita guiada por la galería superior. A lo largo de sus 180 metros, el visitante descubrirá la morfología de la cueva y sus grandes dimensiones. Además, las luces irán desvelando algunos de sus secretos como los antiguos cargaderos de material, pozos, vetas de minerales o un impresionante paisaje de lagos. El recorrido se realiza a través de galerías posteriores a la época romana, pero trazadas sobre ellas. En determinados puntos de la visita sí se podrán observar bocas de galerías romanas que quedaron en desuso.

Las nuevas tecnologías permitirán recrear sonidos y ambientes vividos en el interior de la galería a lo largo de su más de 2.000 años de explotación.

Desde el ruido que hacen las rocas al desprenderse, el traqueteo de vagonetas o el arranque de un motor, pasando por el silencio más absoluto acompañado exclusivamente de oscilantes reflejos sobre las aguas de los lagos.

La visita a las galerías será una experiencia inolvidable.

4. 1984an utzi zion Real Compañía Asturiana de Minasek Arditurrin lan egiteari.









5. Otsailean, udal ordezkariek zenbait kazetarirekin meazuloetara eginiko bisitaldian.

6. Meazuloetako sarbideetako bat, lanak hasi aurretik.

1. Aurkitutako galeriek erromatarren presentzia agertu dute.

2. Lehenengo fasean 185 metroko tarte bat egokituko da jendeari zabaldu ahal izateko.

3. Meazuloetan barrena gauza harrigarriak topatuko ditu bisitariak.







# Meazuloetan **ibilaldi gidatuak** egingo dira

## Uda honetan, Arditurriko meategiak barrutik ezagutzeko aukera izango da. Ikusgai egongo den galeriak 800 metroko luzera du eta bi fasetan moldatuko da. Lehenengoan 185 metroko tarte bat egokitzeko lanak hasiak dira.

2000 urteko historia duten meazuloak egokitzeko lanak konplexuak dira eta arriskuak erabat saihestu egin behar dira. Hori dela eta, meategian barneratzeko sarbide erosoago bat egiten hasi dira. Horrez gain, galeria egonkortzeko lanak egingo dituzte eta bisitarientzako pasabide bat jarriko dute, ibilaldiak erosoak izan daitezen.

Denboraren barrena bidaia egin ahal izango du jendeak bisitaldian. Kanpoko aldea eta meazuloa uztartuko dituen gunean egongo da irteera. Johann Wilhelm Thalacker ingeniari alemaniarraren ahotsak hasiera emango dio bisitaldiari. Izan ere, Thalackerek, Oiartzungo Sein sendiak eskatuta, Arditurriko meazuloak ustiatzeari ekin zion XVIII. mendean. Ondoren, meazuloetan barreneko ibilaldia hasiko da: galeriak, gangak, meak kargatzeko tokiak eta lakuak aurkituko ditu bisitariak bertan.

# **Arditurri,** 2.000 urteko historia

Arditurriko meategietan aurkitutako galeriek eta lan-tresnek garbi erakusten dute erromatarrak bertan lanean aritu zirela, baina ziurrena ustiaketa hauek iritsi aurretik hasi zen. Erromako inperioaren gainbehera hasi zenean, zenbait adituk diote balitekela produkzioa jaitsi izana, edo baita, beharbada, bertan behera utzi izana ere, produkzio handiagoko beste toki batzuen konkurrentziagatik.

Oiartzungo meategiak denbora luzez ahaztuta egon ziren, XVIII. mendean bertako Sein familiak, Arditurriko meak berriro ustiatzen hasi nahirik, Johann Wilhelm Thalacker ingeniari alemaniarrari deitu, eta hark bigarren aldiz aurkitu zituen arte. Penintsulako erromatar garaiko meategi gehienak ezagutzen zituen aditu alemaniarrak eta, 1804an argitaratutako txosten batean, Aiako Harri inguruko meazuloen ezaugarriak deskribatu eta Cartagena, Leon eta Rio Tintokoen maila berean jarri zituen. 1984an utzi zion Real Compañía Asturiana de Minasek Arditurrin lan egiteari. Azken urte hauetan Arkeolanek ikerkuntza lan garrantzitsuak egin ditu, erromatarren meazuloak ikertuz. Hauek 15 kilometro osatzen dituzte eta orain arte hiru besterik ez dira arakatu.

# Guztiontzako **toki atsegin bat**

## Mahaiak, eserlekuak, iturriak eta komunak egingo dira parketxearen inguruan

Parketxea eraikitzeko eta meazuloa egokitu ahal izateko ezezik, bestelako lanak ere hasiak dira Arditurri inguruan. Bidea asfaltatzeaz gain, mahaiak eta eserlekuak ere ipiniko dituzte, nahi duenak deskantsua har dezan edota bazkaltzeko. Iturriak ere egongo dira eta jendeak aterpe hartzeko 200 metro karratuko pergola bat instalatuko dute parketxetik oso gertu, bai bertaratutakoentzat nahiz bidegorria edota mendira joan direnentzat. Izan ere, Arditurriko ingurua da penintsula osoan euri gehien botzatzen duen tokia.

Umeentzako parke bat ere egingo dute, non meazuloen inguruko jolasak eta argibide-taulak topatuko dituzten.

1. Parketxera doan bidea asfaltzeko lanak hasi dira.

2. Iberiar penintsula osoan euri gehien botzatzen duen tokia da Arditurri.









3. Egun oraindik ikus daitezke trenbide zaharraren zenbait arrasto.

4. Mahaiak, eserlekuak eta umeentzako parke bat egingo da hemen.







# **Otsamantegi,** zientzia-fikziozko tokia Arditurrin

## Otsamantegirako bidea berritzeko lanei esker, aire zabaleko meagintza-jarduerak sortu duen pasaia berezia, Martekoa dirudiena, berreskuratzeko aukera izango dugu. Toki horretan, Imanol Marrodanen eskultura bat jarriko da, bertako bizilagunei eta kanpoko bisitariei ongi etorria emango diena.

Otsamantegi baserritik hurbil dagoen eta Arditurriko meategi gehienak inguratzen dituen bidea berritzearen ondorioz, bisitariak eder bezain berezia den pasaia batez gozatu ahal izango du: aire zabaleko urteetako meagintza-jardueraren emaitza dugu hori.

Santa Barbara aldean egindako kanpoko jarduera erakutsiko duen leihoa izango da, eta horren lekuko dugu Otsamantegitik ikusten den hondakindegia.

Bide horretan zehar, bisitariak meategietarako sarrera bat, barnerako behatxulo bat, aurkituko du, itxita dagoen arren, galeriak nolakoak diren ikusteko aukera eskainiko diguna. Oiartzungo toki zoragarria da Otsamantegi, eta horko begiratoki naturaletatik itsasora bitarteko bailara gehiena ikusten da.

Toki horretan Imanol Marrodanen 'Erabatekoa eta ezdeusa: Sorburua' eskultura jarriko da, Oiartzungo Udalak deitutako lehiaketa irabazi zuen eskultura.

5. Aire zabaleko meagintza-jarduerak paisaia berezia sortu du Otsamantegin.

6. Kotxeentzako aparkalekua hemen egongo da.

7. Imanol Marrodanen 'Erabatekoa eta ezdeusa: sorburua' izeneko eskultura hemen kokatu nahi du Udalak.